



**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA**ARRASATE 26**

**Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1888.**

**Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta 1922ko bi jasodura atzeraeman (lehenengoa arinki atzeraemana soilik eta mantsardatua, 1915ean gaitutako estalkipe bat ordeztu zuena) dituen. Zeramikaz estalitako fatxada, harlanduan bao uztaerriak dituena 1., 2. eta 3. oinetan, eta morterozkoak 4. oinean. Lokalari dagozkion behe oineko baoak eraldatuta daude. Proiektu komuna Arrasate 24rekin eta Loiola 15ekin.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihala, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berarizko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; behe oineko estaldurak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.